

EUSKAL HERRIA-TXINA

Zubiak eraikitzen ari dira Gipuzkoako eta Bilboko Txinatar Institutuak

Miren Gabilondo eta Jie Shen Gipuzkoako Txinatar Institutuan aurkitu ditugu. Euskalduna da bata, txinatarra bestea. Bi herrialdeen arteko zubi lanean sinesten dute eta bien artean zuzentzen duten erakundea horren adibide garbia da.

Pasio handiz hitz egiten du Miren Gabilondok. Gaia bizi duen bezalaxe mintzo da. Neurri berean. Gipuzkoako Txinatar Institutua (www.institutochinogipuzkoa.com) berak sortu zuen. «Nire bizitzako proiektua da», aitortu du.

Oso gaztetatik etxetik kanpora ibilia da. «Irlandara bi hilabete eta erdiz joan nintzen 15 urterekin. Inor ez zen joaten orduan. Kontuan izan, orduko 15 urte ez ziren gaur egungoak! Nire bizitzako esperientziarik onena izan zen, oroitzapen ezabaezinak ditut», kontatu du.

Londres, Paris eta Madrilén bizi izan da, eta bidaiatuz beste kultura batzuk ezagutzeko aukera bera eskaini nahi die orain gazteei. Aisialdiaz gozatze hutsaz harago, etorkizunerako hazia ereitea da beretzat. «Zubi lana egiteko ezinbestekoa da txikitatik prestakuntza egokia eskaintzea. Zubi lanik ez dago harreman pertsonalik gabe. Gainera, komunikatzeko, harremanak egiteko gaitasuna garatuko dute umeei eta Parisen, Londresen edo New Yorken etxean bezala sentituko dira», gaineratu du.

Atzerriko merkataritzan aritu da urte luzez lanean. Eta munduko herrialde guztien artean, Txina du jomugan. «Nire lanbideari esker gertutik jarraitu dut Txinaren garapena. Desberdintasunak handiak izanik ere, lotura asko ditu gurekin; herri zaharrak gara bata zein bestea. Hain garbi ikusi nuen harremana sustatu behar genuela! Txina munduaren ardatza da. Argi ikusi nuen duela hamar bat urte. Gu ezin gara inoiz haien lehiakide izan, txikiegiak gara, baina euren aliatu onenak izan gaitzke European. Begira nola dagoen Europa, erdi suntsituta...

 **GIZARTEA** / xole.aramendi@gaur8.info

Ezaguna zaigu euskal enpresek Txinan garatzen duten jarduera ekonomikoa, baita horren ondorioz bi herrien artean sortutako lotura ere. Ez da hain ezaguna, baina, hezkuntza eta kultura ardatz hartuta bi herriotan zubi lana egiten duten erakundeen errealitatea. Gipuzkoako eta Bilboko Txinatar Institutuak dira horren adibide.

Gu haien lagunak izan gaitzke. Eta hau da gure jendea horretarako prestatzeko unea. Eta prestatzea ez da hizkuntza ezagutzea bakarrik. Enpresa munduko profesionalak eta unibertsitate ikasleek horretara mugatu beharko dute, baina haurrek ez. Umeei aurrerapausoa eman behar da, beste denen aurretik. Adin bereko haurren artean harreman pertsonala sortzen da.

Erakunde publikoek euskal enpresei han laguntzeaz ari dira. Horretarako aurretik zimen-
duak jarri beharko dituzu, ezta?», bota du.

Alboan du Jie Shen. Berari ere nabari zaio Gipuzkoako Txinatar Institutuan egiten duena ez dela lan hutsa, gehiago dela. 2008. urtetik bizi da Euskal Herrian. «Nazioarteko Merkataritza eta Informatika ikasi nituen.

Pekinen eta Shanghain lanean aritu nintzen. Beste hizkuntzak ikastea abantaila zen niretzat, eta gaztelera ikasi nahi nuen. Madrilera joan nintzen. Bidaia-tuz Euskal Herrira etorri, orain senarra dudana ezagutu, eta hona etorri nintzen», gogoratu du.

Txinatarren hizkuntzara eta kulturara gerturatzeko eskaintza zabala da. Ikasturtean zehar ematen diren eskolez gain uda garaian ikasketak modu trinko-agoan egiteko aukera dago. Horretarako, udalekuak eta ikastaro intentsiboak antolatzen dituzte Euskal Herrian zein Txinan bertan, gazteei eta helduei zuzenduta.

Batetik, 2-16 urte bitarteko gazteek udalekuak izango dituzte Bilbon eta Donostian. Kaligrafia, Historia eta Geografia ikasi-ko dituzte. Irteerak ere egingo dituzte, gastronomia ahaztu gabe. 16 urtetik aurrerako helduentzat, berriz, ikastaro intensiboak prestatu dituzte

Jie Shen eta Ainhua Urmeneta, Donostiako Bulebarrean duten egoitzan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

